

## AITA PEDRO ARRUPE

Aita Pedro Arrupe, bilbotarra, eta Jesulagunen Nagusia, Filipinas'tik etorrela, Erroma'n, elbarriak jota geisorik aurkitzen dala, batek baiño geiagok jakingo dau.

Ain zuzen, orain iru edo lau urte izparringi-lari batek itaun au egin eutson:

Zuk, Aita Arrupe, eriotzeari ba-deutsazu bildurrik?

Ez, ezertxo ere ez. Alderantziz, lenbailen etortzea gura neuke. Eriotzea zer da bada? Bide latz baten amaia, beste bizi barri bat asteko. Orregatik, bada, egia esateko, eriotzeari ez deusat bildurrik.

—Ez, ete da, Aita Arrupe, gieiegi esatea?

Ez, guk, kristiñauok, ba dakigu beste bizitzan Jaungoiko errukitsua aurkituko dogula, eta gure bizitza onetako erruak andiak izan arren ere, damututen bagara, Aita on-ona izango dala guretzat.

—Baiña, bizitzaren amaia goibela-tristea da.

Baiña, ni fededuna naz, eta niretzat eriotzea ez da bizitza baten amaia, beste bizitza obe baten jarraia baiño. Bizitza zoriontsu orregaz, gure mundu ontetako bizitza, zeruan, osotu, obetu eta betikoatu egingo dala sinisten dot.

—Orduan zergaitik geutso gendeak eriotzari ain beste bildur?

Nik uste dot Jaungoiko zer dan eta nor dan ondo ezagutzen ez dabelako. Baita ere, baliteke, gure emengo bizitza ondo aprobetxatu ez dogulako.

Baiña, dana dala, eriotzea mundu onetako gure bizitzaren amaia da.

Bai, ala da, gorputzeko begiz begira ezker; ala da federik ez dabenentzat, baiña fedez begira ezker, ez dau barru-barruko bake eder ori kentzen. Eta geiago ere esango neuke, poza ere emoten dauela, Jaungoiko gure Aita onarekin betiko bizitzeko poza.

Orain artekoak Aita Pedro Arrupe'ren itzak izan dira. Orain bere azken egunen atetan dago. Osagillan eretxiz, bizirik luzaro iraun leike, baiña ez dau bere osasun osoa eskuratuko.

Ziur nago, berak esandako berbak benetakoak izan zirala, eta Jaungoiko Aita onak bere lan astunen ordain-sari ederra emango deusala.

GOIKOETXEA'tar Iñaki, S. S.

## GORA BIOTZAK

Il zorian da  
gaur egunean  
gure euskera  
laztana  
euskal semeak  
or geienetan  
dabe lo zorrón  
barrena

Gutxi gara gu  
beterik dago  
erbestetarrez  
etxea  
itxartu ezik  
euskaldun orok  
amaituko da gurea.

Oraintxe bakar  
dogu erea  
euskal indarra  
geitzeko  
une onetan  
lokartzen baga  
dala guztia  
bein ilko.

Euskeraz mintzo  
sendi barruan  
euskeraz txaiden,  
guz titan  
gure euskera  
entzun dedilla  
parra par alde  
danetan.

Euskal idaztik  
erosi sarri  
euskal idazleak  
benetan  
euren lanagaz  
ezi dagien  
euskal erria  
euskeran.

Abesti zantzo  
irrintzi eta  
euskal doñuen  
oiartzun  
mendirik mendi  
zelai arrotan  
entzun bei beti  
ta zorun.

Ikastolak ta  
ikastetxeak  
sortu or emen  
ugari  
euskal iakintzak  
indar artuta  
euskera bizi  
ta guri.

Aines egiñaz  
nago begira  
mendi aundiren  
gallurtik  
euskal erria  
euskaldundu da  
nire biotza  
bai pozik.